

Zuri-beltzean

IÑAKI SEGUROLA



FLUORDUN narra-keria kimiko zuri hori ahora sartzen ikasi baino lehen, egur-ikatze zuritzen zizuten hortzak gure aurrekoak. Ikatzak zuria bezten du eta beltza zuritzen, asmoz eta jakitez, eta hargaitik esan liteke bere baitan daramala ikatzak munduaren misteriozko lege zuri-beltza. Ez da miresteko, beraz, sasoi bateko haur bihurri debazuko guztiak Erregeek huraxe ekartzeko irrikitzen egotea: zuritu gabeko misterio gordinari esker hobe eman izan du beti tonotzu gabeko umeak. (Beldur naiz, halere, gure Olenzero, bergizarteratu, eta ikazkintzan (!) aritzen zenezko baso beltzetik sugerik gabeko paradisu zurira erbesteratu zutenetik, beldur naiz, diot, ikatzarekikoak ez ote diren egin xamartuak.)

Baina esatera natorrena da, misterioarekin ala gabe, edozein bihotz garbiri atzeraka latza ematen diola erregalien hartu-eman zuri zikin-estali horretan eskuak beztu beharrak. Beltza da eman nahi eta eman ezina: zer da, izan ere, ematea?, emate hutsa, ordainik batere espero ez duen emate itsu arrazoiingabea? Izan ote liteke horrelakorik hartuak emana zer eta emanak hartua hartzeko duenez gerotzik? Eroen artean bai beharbada? Nekez haietan ere; emanak emate hutsak kanpoko esanahi bat behar du izan baitzepadago gure munduan, eta aukera bakan batzuetara dago hertsiki kondentatua: karitatea edo solidaritatea erakustea ez bada, erregaliak egitea da.

Inbertsio mikroekonomikoa da erregalia, marketing sentimental. Itsu-itsuan ez zion gure aitak amari gona gorria ekarti: erregali bakoitza, jakina da, honenbeste ttekiore/xe-tem-etan dago baliozitatua. Erregalia da deklarata, gezurrezko ematea, beltza zuria dela esatea: deklaratu gabeko diru eta amodio beltza, deklaratu egin behar dira, eta deklaratuaz batera, zuritu. Ogasunean bezala maitasunean ere.

Inperialismo

TXILLARDEGI



BENJAMIN Cruzek merezizendu bat behintzat badi: ez du bere kultur inperialismoa izkutatzen: «*Dado que mis hijos tienen que estudiar en catalán, y no pueden hacerlo en castellano, nos marchamos de aquí.*»

Benjamin Cruz, bestalde, galiziarra da jatorriz. Ourensekoa; eta orain dela zortzi urte iritsi omen zen Katalunara bere familiararekin. L'Hospitalet de l'Infant izeneko herrian finkatu zen, Tarragona probintzian.

Eta bere seme-alabek katalanez ikasi beharra ezin irents dezake. Hospitalet de l'Infant horretan haurrek eta ikasleek oro, faziismoaren garaian bezala, gaztelaniaz ikasi beharra, arazorik gabe onartuko zuen: «*¿Estamos en España o no?*»...

Baina Hospitalet de l'Infanten katalanez ikasi beharra... Gehiegiegi! «*Hasta aquí hemos llegado. No soporto más esta discriminación anti-democrática. Nos marchamos a Granada, a casa de los padres de mi mujer. Y punto.*»

Zehazkiago hitzeginez: Benjamin Cruzek ez du lurraldetasuna onartzen, are zehazkiago: lurraldetasun bakar bai kusten du begi onez, gaztelaniarena. «*Que solo se pueda estudiar en castellano es normal; pero que solo se pueda estudiar en catalán es aberrante, absurdo e insultante.*»

Benjamin Cruzek oso gaizki ikusiko luke Murcian frantses etorkinek frantsesez ikasi ahal izata. Hau bai.

Leiztan edo Amorothon euskaraz ikasi beharra Benjamin Cruzi zer iruditzen zaion galdetu beharrik ez dago: arrunt gaizki.

Benjamin Cruz jaunak Frantziak asmatu duen eredu elebarkarra maite du, mundu guztiko fazistak liluratzan dituen.


Benjamin Cruz separatismo politikoaren apostolu suharra da.

HERRIA

Txetxenia

Eltsinek galdegina zakoten armadako aintzindariari geldi ziztaten delako bombardamenduak, alde guzietarik alabainan entzuten zituen laidoak. Baina ez dute obeditu presidentaren manuari. Ez da nehozentzat segeteru bat elgarren artean berexiak eta makur direla armadako aintzindariak, ez baitu gauza horrek fagozartzen larderia armadan. Dena dela, Eltsinek bildu du gerizako kontseilua eta hunek jakin arazi du behar zirela guduak segitu Txetxeniarrak osoki garraio artio. Izanien, baina fermuki dute ihardokitzen Mendebaldarek, xehetasun zenbait galdegiten dazkotela Eltsine presidentari eta oroit arazten behar direla gizonaren zuzenak errespetatu. Grinriauk dira gisa hortan eta hoin bortizki oldartzen baitira Txet-

HIER:



Azio — Gaur egun

PLANTU / LE MONDE

txeniarreri, eta hortako uzkur daude, ea behar dituztenez ekonomiko tratu batzu izenpetu Errusoekin.

EDITORIALA

Ekaitza

Gasteizko Gobernua

Gasteizko Gobernu berria, Gobernu eskuindarra izango da, sozialki erreazionarioa, langile eta sektore herritarren interesak baztertuko dituen, eta, era berean, nazio ikuspegiak erregionalista. Hau ez da euskaldunok eraikitza nazional, sozial eta kulturalari begira behar dugun Gobernua, azken zortzi urteetan egin duen gauza berbera egingo baitu, baina EAren laguntzaz oraingoan.

JON IDIGORAS

ZUZENDARIARI

Xabier Zubiri institutuko ikasle ohien idatzia

94-XII-30ean Xabier Zubiri Institutuari buruz 'Diario Vasco-n' argitaratutako informazioari dagokionez ikasle txikiak ohi talde batek bertan esandakoari buruz zenbait gauza ditugu esateko, oraingo ikasleek ez daukaten eta guk daukagun askatasun bat erabiliz, institutuko ikasle garaian ez erin genuena erabili.

Politika institutotik kanpo uzteaz dihardutenean, nola azaltzen da irakaste jakin batzuek, zuzendaria barne, beren ideia politikokoak ikasleengan ezartzeko ikastorduko erabili izanak? Eta nola urte guzti hauetan zuzendaritzak bereak ez diren gainerako irizitzi eta jokaraz eragotzi izana?

Institutuan heziketa 'zabal eta liberal bat' eraman da orain arte. zuzendaritzak gogoko ez dituen ideia ezberdinak zentsuratuaz: ikasleek eginko aldizkaria, muralak, kultur ekintzak...

Kanporaketei gagozkiola, ez da egia ez dutela inor kanporatu azken 6 urteotan, horretarako notak aitzakiatzat erabili dituzelarik.

Zuzendaria institutuan duen 'maila ona' egiaztezeko selektibitateko emaitzetan oinarritzen da, baina zenbat ikasle ez du UBIRA iristea edo eta hau gainditzea lortu?

Guzti hau egin ondoren, Eskola Kontseiluan ideia ezberdinetako kide berrien sarre-rarekin, beraien monopolioa kolokan ikusi

dute eta honek auzetutako dimisioan eragina izan duela uste dugu.

Azkenik, frogarik egon ezean inor salatu ez daitekeela aldarrikatu beharrean aurkitzen gara, eta arazo guzti hauei konponbidea emateko garaia badela uste dugu.

MIKEL GOÑI ETA XABIER ZUBIRI-KO BESTE 60 IKASLE OHI

Donostia

Araba eta euskara

Euskararen jabe Araban ba al digute izaten utziko? Hala bada, behintzat, bide okerretik doaz. Nola uler daitezke, bestela, euskarak jasaten dituen erasoak? Azkenetarikoa dugu orain dela gutxi Arabako Foru Aldundiak eman digun ustiekabea: euskararentzako diru laguntzen murrizketa. Erakunde Ofizialak errealtateak urrun bizi direla pentsatzen duten horietakoa naiz. Ez da, aitzitik, jaiotzez daukadan ustea: erakundeen beraien ihardurak eragindako ondorio logikoa batziki.

Argi dezadan, arestian baieztatutakoa. Zein da, ene uste apalean (jakina!), egun euskarak Araban duen errealtatea? Dauden datuei gainbegiradatu bat besterik ez genieke eman beharko, egoera 'arrosa kolorekoa' ez bada ere (nik ere ez dut 'errealtateak urrun bizi' nahi...), pixkanaka aurrerapauso fhandiak ari garelako ematen konturatzeko.

HPINak (Hizkuntza Politikarako Idazkari-tza, Nagusiak) kaleratu berri dituen datuen arabera, Araban bikoiztu egin da euskaldunen

kopurua (0 urtetan: 1981ean 9.693 euskaldun izatetik 1991ean 22.995 izatera pasa gara; orotara, biztalaria guztiaren % 8,6a. Beste 53.581 arabar (% 20) ia euskaldunak dira.

Adinari dagokionean, 5 eta 14 urte bitarteko arabar taldean gertatu da hazkunderik nabarmena: hamar urte horietan euskaraz hitz egiten zuten edade horretakoak % 5etik % 19,5 izatera pasa dira.

Honekin estuki lotuta dagoen beste alde garrantzitsua honako hau da: 1982-83 ikasturtean B (elebiduna) eta D (euskara hutsen) ereduatan matrikulatu zen haur kopurua % 25a suposatzen zuen; 1994-95ean, ordea, % 64a. Proporzioak horrela jarraitzekotan, eskolaurteko ikasleek % 90ek B eta D ereduatan egingo ditu ikasketak hamar urte barru.

Baina ez dira haurrak 10 urte hauetan Araban euskaldun kopurua bikoiztearen eragile bakarrak izan. Haldun Euskalduntzeak ezagutu ditu garai honetan, inongo zalantzarik gabe, bere unerik onenak (euskara ikasten ari den kopurua ondorio logikoa batziki).

Hala eta guztiz ere, Arabako biztanleria osoaren aurrean guzti hau huskeria dela esane, orain arte aipatutakoak suntuizteko arrazoi zein datuak kaleratzeko aukera eta eskubidea daukadan ez da faltako. Norberak askatasun osoz joka dezake nahi duena egietiko; baina norberak jakin ere jakin beharko luke eragin dezakeena neurtzen.

ADOLFO KEREJAZU

Gasteiz

GAIA JARRITA



Zornotzako krosa

Goiz parte hontan hotzak ez digu erasoko leun-leun, hala ere krosak Zornotza aidea bilduko du hainbat lagun afrikarrei aurre egiterik nahiz ta ez dugun gaur egun lehen postuetan euskaldunen bat ikustea espero daigun

IÑIGO OLABARRI

Egunkaria

Batzorde Parkeidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



QJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordakaria: IÑAKI URÍA

Zuzendaria: MARTXELLO OTAMENDI

Zuzendari ordezkoa: LUZIEEN EYXEH AHARRETA

Gerentzia: FERMIN LAZKANO

Publizitateak: MARI JOSE SARASA

HELVIDEAK

Egoitze negusia: Gudarien etorbidea, 2/g / 20140 Andoain / 40 02 22 / Erredakzioa: 40 02 55 / Publizitateko faxa: 40 07 07

Araba: San Antonio, 20-1 erler / 01005 Gasteiz / 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Ibañeta Muzategia, 45-13 esk. / Irimutz dorea / 31011 Iruñea / 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabaltzura Enparantza, 2-1 ezkerrean / 48005 Bilbo / 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Panneau 14, 1/ 503 Posta kutxatila / 64100 Baiona / 59 59 35 / Faxa: 59 25 75 11